

## **MERKATUAREN SEGMENTAZIOA**

Atal honetan gure bezeroak zeintzuk diren zehaztuko dugu, haien beharrak asetzeko sortutako produktua dela kontuan hartuz.



Aipatu beharreko ezaugarri bat izaera da; hau da, gure bezeroak bereizteko nolakoak diren aipa dezakegu. Alde batetik, argi dago produktua perfektioa lortu nahi duen pertsona batentzat aproposa dela, zehaztasuna eskaintzen baitu. Bestalde, kontraesana iruditu arren, oso traketsa den norbaiti ere oso ondo datorkio; izan ere, bere lana egokia izatera lagunduko dio.

Adinari dagokionez, 10-20 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bereziki marrazketa teknikoa ikasgaia dutenei. Bizilekuari erreparatuz, Espainiako biztanleei bideratutako produktu bat izango da.

Adin tarte hau aukeratu dugu, konpasa asko erabiltzen delako hezkuntzan maila horietan eta askotan zehaztasuna lortzea zaila delako adin txikia dutenentzako. Aldi berean, marrazketa teknikoa ikasgaia dutenentzako oso erabilgarria da; denbora luzez egiten dira konpasarekin lanean, eta modu honetan denbora asko aurrezten da. Hala ere, zaletasun moduan marrazteko konpasa erabiltzen dutenentzat ere aproposa da, baita goi mailako ikasketetan tresna hau erabiltzen dutenentzat ere.

Konpas honek prezio baxua du, izan ere, erdi mailako biztanleriari zuzenduta dago; produktuaren eskuragarritasuna bermatzea da gure helburua. Konpasaren eta kaxaren prezioa 15€ da.

Azkenik, lehen aipatu bezala, Espainia mailan salduko dugu gure produktua, aduanetako erretentzio posibleak saihesteko.

